



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 13a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. Titulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zerbitzua kanpoan kontratatzeko erabakia azaltzeko haiei. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio eta Gutxiengoen Europako Gutunari buruz eginiko gomendioak. foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza Garcia jaunek aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren Madrileko ordezkari itxi dezan. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erronkari jatorrizko deituraren aldaketa erretira dezan, arlo sozioekonomikoan eragiten dituen kalteak direla-eta. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egungo foru araubide mugatuaren kudeaketari buruzko zenbait neurri hartzeko borondatea adierazten du. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza babestuen tipologiak alda ditzan. Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu, Nafarroako Administrazioaren eraikinetan eta egoitzetan pankartak, afixak, paskinak edo bestelako mezuak jartzeko debekatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren aurrean. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten baitie Cárnicas Floristán enpresako langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan ziurta dezan emakumeek osaturiko bikoteek laguntza bidezko ugalketarako eskubidea izatea. Osasun Batzordeak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak zer dela-eta aldatu duen Memoriaren Unitateko gaixoentzako arreta eta ordezkotza zer aukera darabilen gogoan Alzheimerra duten pertsonendako, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (13. or.).

—Galdera, besikulako 100 kirurgia-operazio eta 400 kolonoskopia San Miguel Klinikara bideratzeko inguruabarrei eta arrazoiei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (13. or.).

—Galdera, jakiteko zer dela-eta ez diren ekainetik itxaronzerrendak publikoki gaurkotu, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (14. or.).

—Galdera, erregaien salmentan osasunerako zentimoaren bidez lortutako diru-bilketa gehigarriari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (15. or.).

—Galdera, pertsonen lurzoru ez urbanizagarriko bideak iragateari buruz onetsitako mozioa dela-eta Nafarroako Gobernuak egindako urratsei eta betetze mailari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (16. or.).

—Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zuzemenik egin duen arantza bifidoa duten pertsonak gaixo kroniko gisa har daitezten, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (17. or.).

—Galdera, Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera abian jarritako neurriei buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (17. or.).

—Galdera, jakiteko zerk eragin duen baliabide gehiago behar izatea Nafarroaren zorraren interesak ordaintzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).

—Galdera, bigarren seme-alabarengatik eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (19. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Lantaldea, aztertze aldera parlamentarien kopurua eta lanaldia, Arartekoaren figura eta beste neurri batzuk. Foru Araubideko Batzordeak bazter utzia (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2012ko azaroaren 23ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Aipatu foru lege proiektua 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. Titulua aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. Titulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2012ko azaroaren 23ko eguer-**

diko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zerbitzua kanpoan kontratatze-ko erabakia azaltzeko haiei.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zerbitzua kanpoan kontratatze-ko erabakia azaltzeko haiei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako zerbitzua kanpoan kontratatzeak kaltetutako langileekin, eta enplegu-alternatibak bila ditzan egungo krisiaren testuinguruan egoera ahulagoan daudenez.

Orain dela gutxi, kasuko lizitazioa egin ostean, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen zerbitzua kanpoan kontratatu zuen Nafarroako Gobernuak;

Mediterránea de Catering enpresari esleitu zion zerbitzua, hain zuzen ere.

Horren guztiaren ondorio nabarmenena izan da 160 langile kaleratzea. Enpresak konpromisoa hartu zuen kaleratutako horien parte handi bat kontratu berrien bidez berriz kontratatzeko.

Argi dagoenez ukitutako pertsona horien artean badaudela egoera oso zaila bizi dutenak eta ezin izanen direla denak kontratatu, uste dugu beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuaren inplikazioa, legearekiko errespetutik saiatzeko aldera ahal den modurik onenean artatzen egoera konplikatuena, langile horien enpleguari eta enplegagarritasunari dagokienez.

Hori guztia dela-eta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zuzenean eta bitartekaririk gabe azal dakien zerbitzua kanpoan, Mediterránea de Catering enpresari, kontratatze-ko erabakia, bai eta ea prest dagoen ala ez ukitutako langileen eskariak aintzat hartzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalegin bat egin dezan, kasuko lege-bideen barruan, zerbitzua kanpoan kontratatze horrek enpleguari dagokionez izanen dituen ondorio negatiboak arintzen saiatzeko. Halaber, enplegu horretan lortutako errenta familiaren diru-sarrerara iturri bakarra zuten pertsonetikiko sentsibilitate berezia edukitzea eskatzen da.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio eta Gutxiengoan Europako Gutunari buruz eginiko gomendioak.

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCIA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza Garcia jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete ditzan Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Erregio eta Gutxiengoan Europako Gutunari buruz eginiko gomendioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Leuza Garcíak eta Manu Ayerdi Olaizolak, foru parlamentari diren aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakorearen babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

1992ko azaroaren 5ean, Espainiako Estatuak Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna sinatu zuen; 2001eko apirilaren 9an, sinadura berretsi zuen, eta urte bereko abuztuaren 1ean indarrean sartu zen ituna, eta Espainiako Estatuak ituna betetzeko maila goreneko konpromisoa hartu zuen.

Halere, bai eguneroko bizitzan, bai Europar Batasuneko estatu kideek aipatu ituna sinatzean hartutako konpromisoak betetzen dituztela ikuskatzeaz arduratzen den Adituen Batzordeak egindako txostenetan, ikus daiteke Espainiako Estatuak eta, bereziki, Nafarroako Foru Komunitateak, behin eta berriro urratzen dutela Hizkuntza Gutxituen Europako Itunean adierazitakoa.

Izan ere, bere azken txostenean, zeina 2012ko urriaren 25ean argitaratu baita, Hizkuntza Gutxituen Adituen Batzordeak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan “gutxienez ere euskarazko

irriti lizentzia bat eta telebistako bat ematea ziurta dezan; beharrezkoa balitz, Euskal Autonomia Erkidegoarekin lankidetzan”; eta agintariak animatzen ditu “hizkuntza gutxituan gutxienez ere irriti bat sor dadin erraz dezaten”.

Halaber, Adituen Batzordeak bere bigarren ebaluazio-txostenean –463. paragrafotik 467. paragrafora–, espresuki aipatzen du euskara hutsean emititzen duen irriti pribatu bakarra, Euskalerrria Irratia, behin eta berriro bazter gelditu dela lizentziak esleitzeko prozesuetan, bai eta urteko dirulaguntzetatik ere. Adituen Batzorde horrek berak gogorarazi du lehenago ere interesatu dela eta eskatu duela informazioa auzi honi buruz, eta ez duela jaso egindako informazio-eskaeraren araberrako erantzun osorik.

Bigarren txosten honetan, Adituen Batzordea harago doa, eta “agintari eskudunak premiatzen ditu susta dezaten eta erraztu dezaten Nafarroan euskaraz emititzen duen irriti pribatu bat mantentzea edo sortzea”.

Adituen Batzordeak orobat salatzen du Industria Ministerioak 30.000 euroko isuna jarri ziola Euskalerrria Irratiari, lizentziarik gabe emititzeagatik. Zehapen hori errekurrituta dago, auzitegiek horri buruz hartu beharreko erabakiaren zain. Hori guztia ikusirik, Adituen Batzordeak agintariei eskatu die “jarrera positiboagoa izan dezaten Foru Komunitatean Nafarroako euskaldun guztientzat euskara hutsean emititzen duen irriti bakarrarekin”.

Halaber, Adituen Batzordeak bere txostenean dioenez “hiri-barruko euskarazko irriti bakarra denez gero, eremu horretan euskaldunen kopurua esanguratsua denez gero, eta Nafarroako euskaldunak bizi ohi diren eremu osoa hartzen duen irriti bakarra denez gero, Adituen Batzordeak agintariei gonbit egiten die beren erabakia berrazter dezaten eta irriti horri –Euskalerrria Irratiaz ari dira– lizentzia bat ziurta diezaioten”.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hizkuntza Gutxituen Europako Batzordearen gomendioak bete ditzan eta Euskalerrria Irratiari lizentzia bat ziurta diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiten has dadin, euskaraz emititzen duten ETB1 eta ETB3 telebista-kateak LTD bidez ikusi ahal izan daitezen Nafarroan.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Foru parlamentariak: Patxi Leuza García eta Manu Ayerdi Olaizola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren Madrileko ordezkari itxi dezan.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Gobernuaren Madrileko ordezkari itxi dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko kide Txema Mauleón Echeverría jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritza itxi dezan.

Krisi ekonomikoko azken urteotan, aurrekontu arloko murrizketa-politika oso latza pairatzen ari gara Nafarroan, ondorio oso negatiboak izaten ari dena hezkuntzan, osasungintzan, oinarriko errenta eta mendekotasuna bezalako gizarte politikan eta, oro har, politika publiko guztietan. Hori-etatik guztietatik, Kultura Departamentua izan da

aurrekontu-murrizketa –eta, horrenbestez, jardueramurrizketa– handiena pairatu duena.

Beste politika fiskal batzuk eta ekonomia berpizteko beste politika batzuk aplikatzeaz gain, ahal den eraginkor eta efizienteenak izan behar dugu gastu publikoari dagokionez.

2010ean eta 2011n, Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritzak 237.753 euroko eta 207.003 euroko aurrekontua izan du, hurrenez hurren, nahiz eta azken batean betetakoa 161.547,61 eurokoa izan zen 2010ean, eta 123.138,02 eurokoa 2011n.

2012an, Ordezkaritzaren aurrekontua 185.606 eurokoa da, eta heldu den urterako 124.333 euroko aurrekontu bat aurreikusi da.

2010eko eta 2011ko jardueren oroitidazkitik ondorioztatzen da Ordezkaritzaren jardura mugatu dela, funtsean, ekitaldi soziokulturalak eta ordezkari itxi instituzionaleko eta protokolo ekitaldiak antolatzen eta Nafarroako Gobernuko kideei Madrilerara joaten direnean laguntza ematera.

Ordezkaritzak garatutako jarduerari buruz egin daitezkeen balorazioak gorabehera, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen ustez, besteak beste kulturaren alorrean halako aurrekontu-murrizketa bortitzak aplikatzen ari diren testuinguru honetan posiblea da Kultura eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko langileek beren gain hartzea ordezkari itxi horren eginkizunak eta ordezkari itxi mantentzen erabilitako baliabideak erabiltzea Nafarroan kultur ekintzako programak garatzeko.

Argi izan behar dugu aurrekontua –eta, horrenbestez, jarduera– hainbeste jaitsi dela ikusita, Departamentuko langileak aski direla eginkizun horiek beren gain hartzeko. 2012an egonda, eta teknologia berriak eskueran izanda, gaur egun ez dago zertan eduki Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritza bezalako bulegorik, arestian adierazitako jarduerak bezalakoak garatzeko.

Halaber, testuinguru sozial eta ekonomiko honetan azpimarratu beharra dago protokolo- eta ordezkaritza-jarduera oro ahalik eta gutxien egin behar dela, ekonomiaren eta aurrekontuen arloetan bizi ditugun zailtasunak kontuan hartuta.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuaren Madrilgo Ordezkaritza itxi dezan, eta haren eginkizunez Kultura eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko langileak arduratu daitezten, hala-ko moduan non Departamentuaren kultur ekintza hobetzera bideratuko baita neurri horren bidez aurreztutakoa.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erronkari jatorrizko deituraren aldaketa erretira dezan, arlo sozioekonomikoan eragiten dituen kalteak direla-eta.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Erronkari jatorrizko deituraren aldaketa erretira dezan, arlo sozioekonomikoan eragiten dituen kalteak direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Erronkari jatorrizko deitura babestuan beste arraza batzuk sartzea.

Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialak C294 zenbakiko dokumentua argitaratu zuen 2012ko irailaren 29an, zeinaren bidez jasotzen baita Erronkari jatorrizko deitura babestuaren aldaketa (510/2006 CE Erregelamendua, 6. artikulua, 2. idatz-zatia, nekazaritzako produktuen eta elikagaien Jatorrizko Deituren eta Adierazpen Geografikoen Babesari buruzkoa).

Talde honen iritziz, Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko Departamentuak arau-aldaketa hori justifikatze aldera aurkeztutako dokumentazioan jasotzen diren iritzi askok, Erronkari Jatorrizko Deituraren gaineko behar bezalako ezagutza erakutsi beharrean, horren gaineko ezjakintasuna erabatekoa dela erakusten dute, argi eta garbi; horrenbestez, ondorioak latzak izanen dira jatorrizko deitura horretan, zeina desagertzeko arriskuan jartzen baita.

Aurrekari horrekin, argi dago Erronkari jatorrizko deitura ez ezik jatorrizko gainontzeko deiturak ere jartzen direla arriskuan, nabarmen ahulduta gelditzen baitira etorkizunean egon litezkeen aldaketan aurrean; izan ere, zerbait gelditu baldin bada agerian, izan da Nafarroako Gobernuak irimotasunik gabe defenditzen dituela gure lehen sektoreari hainbesteko balio erantsia ematen dioten gisa horretako tresnak.

Zehazki, argi dago Erronkari gazta egitean assaf arrazako esnea sartzeak ahuldu egiten

duela, indartu edo sendotu beharrean, produktua-
ren eta produkzio-eremuaren arteko lotura.

Bestalde, Departamentuan deituraren baldin-
tzen aldaketari buruzko dokumentazioa prestatu
dutenen kontraesanen eta ezagutza ezaren era-
kusgarri argia da esatea artzaintza dela jatorrizko
deiturako arrazak elikatzeke oinarria, eta hori “4.
puntuari zehaztutako produkzio-eremuan bakarrik”
egin behar dela; ahantzi egiten baita assaf arrazak
ezaugarri bat baldin badu hori ez dela, hain zuzen
ere, artzaintza; aitzitik, arraza hori pentsu kontzen-
tratuen bidez elikatzen da, eta estabulazio-araubi-
dean nagusiki. Halaber, arraza hori arrotza zaio
Nafarroako abeltzaintza-tradizioari, orain dela oso
gutxi ezarria da, eta inguru geografikoarekiko lotu-
rarik gabea; halatan, ez dago justifikatuta Departa-
mentuak arraza hori sartzearen defentsa egitea.

Hortaz, era horretako erabakiek –errealitateari
erantzuten ez dioten argudioetan oinarrituta hartu-
ak eta jatorrizko deitura baten ezaugarrien defen-
tsarako exijitu beharreko gutxienezko erantzuten
ez dietenak– ondorioak izan ohi dituzte ikuspuntu
sozioekonomikotik, eta argi dago ez direla aintzat
hartu: Eragin oso negatiboa dute esne-ardien sek-
torean; bereziki, latx ardien ekoizleei dagokienez.
Areago, argi dago eragin oso negatiboa izanen
duela Foru Komunitateko iparraldeko landa-ere-
muan, zeren ustiategiak ixtea ekarriko du zalan-
tzarik gabe, despopulazioa, eremu tradizionaletan
esne-produkzioaren deslokalizazioa; alegia, erren-
ta-ekoizpenaren arloko galerez gai, konponbide
nekeza izanen duen ehun sozialaren galera ere
ekarriko du.

Bestalde, gaztaren industria hornitzeko adina
latx ardi-esne ez dagoela esaten denean, bi erre-
alitate oso argi jarri behar dira agerian: behar adina

esne dago, egon (sektoreko elkarteak latx artalde-
en errendimenduak hobetzeko lanean jardun dira),
eta hori aski izanen ez balitz ere, frogatu egin dai-
teke uko egin zaiola, kanpoko arraza estentsiboak
deituran sartu ostean (2011-2012), Erronkari jato-
rrizko deituran diharduten artzainek eskainitako
latx ardien 160.000 litro esne biltzeari, eta horrek
berekir ekarri zuen, zuzenean ekarri ere, esnea-
ren prezioa jaitea eta, horrenbestez, errentagarri-
tasuna.

Hori dena gutxi balitz bezala, Nekazaritzako
Politika Bateratuaren erreformak sartzten duen
ingurumen-osagaiari buruzko argudioak ere balia
litezke, larrean ibiltzen diren latx ardiek egiten
duten garbiketa-lanari dagokionez eta orain sartu
nahi den beste arraza horrek arlo horretan egiten
duen lan ezdeusari dagokionez.

Finean, eta argudio horiek guztiak oinarri har-
tuta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak
ondoko mozioa aurkezten du, eztabaidatu eta boz-
katzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du erretira dezan Erronkari jato-
rrizko deituraren aldaketa –Nekazaritzako produk-
tuen eta elikagaien Jatorrizko Deituren eta
Adierazpen Geografikoen babesari buruzko Kon-
tseiluaren 510/2006 CE Erregelamenduko 6. arti-
kuluko 2. idatz-zatiaren arabera–, arlo sozioekono-
mikoan eragiten dituen kalteak direla-eta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du jatorrizko deitura guztiak babes
ditzan eta lehen sektoreari balio erantsia ematen
dioten tresna gisa defenda ditzan.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egungo foru araubide mugatuaren kudeaketari buruzko zenbait neurri hartzeko borondatea adierazten du.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egungo foru araubide mugatuaren kudeaketari buruzko zenbait neurri hartzeko borondatea adierazten baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Foru Araubideko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Bakartxo Ruiz Jasok eta Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko 196. artikulua eta hurrengo babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Foru Araubideko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroaren egungo esparru juridiko eta politikoak –Foruaren Hobekuntzak– eta horretaz UPNren Gobernuak bata bestearen ondotik egin duten kudeaketak porrot egin dute, agerian utzi dutenez, gure lurraldearen etorkizun ekonomiko eta soziala bermatzeari dagokionez eta garapen demokratiko bat ahalbideratzeari dagokionez, zeinaren arabera nafar herritarrak burujabeak izanen baitira erabakiak hartzeko eta erabaki instituzional, politiko eta ekonomikoak beren borondatearen arabera egokitzeko.

Agerikoa izanik Foruaren Hobekuntza indarrean sartu arteko prozesu osoak defizit demokratikoa izan zuela oinarri –abertzaleen ordezkarien bazterketa, LOAPAren eragina, herritarrek berretsi gabeko estatutu indardun bakarra izatea Estatu osoan...–, begi-bistakoa da UPNk eta Nafarroako Gobernuaren egungo lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak muzin egin diotela Foruaren

Hobekuntzan jasotzen diren eskumen mugatuak defendatzeari.

Izan ere, izan diren UPNren gobernuen eskutik –eta gogortasun bereziz, Yolanda Barcina andrea lehendakari duen Gobernu honen legegintzaldia– hasieratik– larriki narriatu dira, parlamentu-talde honen iritziz, Foruaren Hobekuntzan bertan azaldutako jarduketa-esparru berez mugatuak. Espainiako gobernuek erakutsi duten grina zentralistak agintari nafarrengan aurkitu du, kasurik gehienetan, bere aliatuak handiena, zentralismoari estaldura juridiko eta politikoa eman baizik ez baitute egin.

Hamabost urte aski izan dira Nafarroari de facto ken dakizkion azken hamarkadetan zalan-tzan jarri gabeko esparruak –esate baterako, funtzio publikoaren alorra edo zor publikoa jaulkitzeko ahalmena–, horien jagole arduratsua izan beharko lukeenaren oniritziarekin; hau da, Nafarroako Gobernuaren oniritziarekin. UPNren eskutik, Estatuarekiko aldebiko harremana anekdota huts bihurtu da, eta guztiz esanguratsua da Europako erakundeetan araubide berekia aldeztari dagokionez izandako utzikeria-jarrera.

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ustez, ezinbestekoa da, justizia soziala eta kalitatezko gizarte bermatuko badira, guk gure neurriak definitu ahal izatea, gure arazoak konpontzeko eta gure errokei ekiteko. Eta bereziki premiazkoa da gure jarduketa-esparru mugatuak aktibatzea, neurri sozial eta ekonomikoak definitze aldera Madril-ek taxututako neurriak inposatu izanak harrarazi digun malda dramatiko iraultzeko.

Horrenbestez, Bildu-Nafarroak, larrialdi ekonomiko eta sozialeko egungo egoera ikusita, presako ondoko neurriak proposatzen ditu, egungo esparru juridiko eta politiko mugatuan jasotako tresnak aktibatuz:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela egungo foru araubide mugatuaren kudeaketa arloko neurri hauek aktibatzea:

1. Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren bilera berezia egiteko deialdia egitea berehala, non defendatuko baita Nafarroak eskubidea duela Foruaren Hobekuntzan bertan

jasotako esparruei buruzko bere politika ekonomiko berekiak definitzeko: zor publikoa jaulkitzeko ahalmena, funtzio publikoaren esparru berekia definitzea, Estatuak Nafarroaren espolioazio sistematikoa egiteari uztea BEZaren doikuntzen bidez eta abar.

2. Nafarroaren eta Estatuaren arteko alde biko bilera deitzea berehala, Foruaren Hobekuntzako 69. artikuluan ezarri bezala, exijitze aldera ez daitezen berriz ere erabil Foruaren Hobekuntzan adierazitako ahalmen berekia de facto ukatzeko, Foruaren Hobekuntzako zenbait kontzeptu zehaztugabe –esaterako, “Estatuak arlo honetan dituen eskumenak deusetan kaltetu gabe”–.

3. Nafarroa Ecofinen egon dadin exijitzea. Nafarroak, Europar Batasunaren barruan Ogasun berekia duenez gero eta Europako beste lurralde

batzuetan gertatzen den bezala, eskubidea du organo horretan egoteko eta organo horretan hartzen diren erabaki ekonomiko garrantzitsuetan parte hartzeko eta bere iritzia emateko.

4. Transferentzia Batzordea biltzeko deialdia egitea berehala, Gizarte Segurantzaren kudeaketa egiteko eskubidea berreskuratze aldera.

5. Beherantz berrikustea “Nafarroak Estatuari eginiko diru-ekarpen” gisa 2013rako ezarritako zenbatekoa, Nafarroak nahi ez dituen zerbitzu guztiak deskontatuta (Monarkia, Armada, Senatu...).

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da etxebizitza babestuaren tipologiak alda ditzan.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita etxebizitza babestuaren tipologiak alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, etxebizitza babestuaren tipologiak aldatzeko buruzko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea da etxebizitza babestuen arloan indarrean dagoen araudi nagusia. Foru lege horrek berariaz jasotzen du etxebizitza babestuen tipologiei buruzko titulu bat; zehazki, bigarrena.

Bigarren tituluko lehen kapituluak etxebizitza babestuen kontzeptua, ezaugarriak eta tipologia arautzen ditu; halatan, 7.2 artikulua bi etxebizitza babestu mota ezartzen ditu: babes ofizialeko etxebizitza eta prezio tasatuko etxebizitza.

Foru lege hori onetsi zenez geroztik joandako denboran aldatu egin dira etxebizitza babestuaren sustapenari lotutako egoera soziala eta testuinguru ekonomikoa. Herritarrek arlo horretan egiten dituzten eskari berriak ere egiazta daitezke, gero eta gehiago direlako higiezinak erostearen aldean alokairuko etxebizitza lehenesten dutenak; hala erakusten dute Nafarroako Gobernuak berak eskatzaileen eroldaren bidez esku artean darabil-tzan etxebizitza babestuko eskabideek.

Hori guztia ikusita, Nafarroako Gobernuak errotik birplanteatu behar du etxebizitza arloko politika eta, zehazki, etxebizitza babestuen tipologia, egungo testuingurura eta inguruabarretara egokitzeko.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak honakoak egitera premiatzen du:

- 10/2010 Foru Legean jasotzen diren etxebizitza babestuaren tipologiak aldatzera.
- Etxebizitza babestuen eskatzaileen erroldak islatzen duen eskariaren ezaugarrietara egokitzea aldaketa hori.

- Nafarroan etxebizitza babestuaren egoera eta eskaria aztertuko duen azterlan soziologiko batean oinarritzera aldaketa hori.

- Sektorearen parte-hartze eta adostasun prozesu baten bidez garatzera etxebizitza babestuen tipologiaren aldaketa.

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu, Nafarroako Administrazioaren eraikinetan eta egoitzetan pankartak, afixak, paskinak edo bestelako mezuak jartzeari debekatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren aurrean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten du Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren aurrean; izan ere, debekatu egin du Nafarroako Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen eraikinetan, bulegoetan, egoitzetan edo zentro publikoetan pankartak, afixak, paskinak edo bestelako mezuak jartzeari, laneko arropetan eramandako mezuak barne. Legebiltzarraren ustez, debeku horrek adierazpen askatasuna urratzen du.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, langileek, lanean dauden bitartean, protesta-mezuak erakustea eta eskubideak aldarrikatzea ezin da ondasun publikoen erabilera makurtzat hartu.

3. Nafarroako Parlamentuak herritarrak animatzen ditu, pairatzen ari diren murrizketen aurrean, modu aktiboan parte hartzen jarrai dezaten beren eskubideak defendatzeko errebindikazioetan, eta uste du errebindikazioa herritarren parte-hartze mota zilegi bat dela.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten baitie Cárnicas Floristán enpresako langileei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die, bizi dituzten une zail hauetan, Arguedasko Cárnicas Floristán enpresako langileei eta beren familiei; izan ere, enpresak erabaki du bere jarduera amaitzea, eta horrek ia 80 langile kalera-tzea dakar.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ahal den ahalegin handi-

ena egin dezan, erabaki hori atzera botatzen saiatzeko Nafarroako ekonomiarentzat hain zailak diren une hauetan, jabe eta akziodun nagusiekiko negoziazio-bide berriak irekiz, eta Gobernuak konpromisoa hartuz beharrezkoa den guztian laguntzeko, Arguedasko Floristán enpresa berreraiki ahal izan dadin eta herri horretan izandako jarduerarekin jarraitu ahal izan dezan.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan ziurta dezan emakumeek osaturiko bikoteek laguntza bidezko ugalketarako eskubidea izatea.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko azaroaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan ziurta dezan emakumeek osaturiko bikoteek laguntza bidezko ugalketarako eskubidea izatea.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako zerbitzuen prestaziorako zorroan emakumeek osaturiko biko-

teen laguntza bidezko ugalketa eskubideak berma ditzan sistema publikoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lagundutako giza ugalketa burutzeko zerbitzua eskuratu ahal izateko, antzutasun diagnostikoa, agindu klinikoa edo ugaltzeko ezintasuna izenda ditzan bete beharreko oinarriko baldintza moduan. Horretarako nahikoa izanen da berariazko medikuaren agiria, izatezko bikoteen erroldan izena emana izatea edo ezkontuta egotea, eta bikotekiderik ez izatearen aitortza emakume ezkongabeen kasuan.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak zer dela-eta aldatu duen Memoriaren Unitateko gaixoentzako arreta eta ordezkoko zer aukera darabilen gogoan Alzheimerra duten pertsonendako.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Osasun Departamentuak zer dela-eta aldatu duen Memoriaren Unitateko gaixoentzako arreta eta ordezkoko zer aukera darabilen gogoan Alzheimerra duten pertsonendako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Vera andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Osasun Departamentuak zer dela-eta aldatu du Memoriaren Unitateko gaixoentzako arreta? Ordezko zer aukera darabil gogoan, baldin eta aukerarik badarabil, Alzheimerra duten pertsonendako?

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, besikulako 100 kirurgia-operazio eta 400 kolonoskopia San Miguel Klinikara bideratzeko inguruabarrei eta arrazoiei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, besikulako 100 kirurgia-operazio eta 400 kolonoskopia San Miguel

Klinikara bideratzeko inguruabarrei eta arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín andeari, Osasun Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Zer inguruabarretan eta zergatik bideratu dira 300.000 euro San Miguel klinikara, besikulako ehun kirurgia-operazio eta laurehun kolonoskopia egiteko?

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakiteko zer dela-eta ez diren ekainetik itxaronzerrendak publikoki gaurkotu.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer dela-eta ez diren ekainetik itxaronzerrendak publikoki gaurkotu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ak dioenari jarraiki, honako galdera egiten dio Osasun kontseilari Marta Vera Janín andeari, zehazten den Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Kontseilari andereak, iragan urriaren 23an egindako Osasun Batzordean, hainbat datu eman zituen itxaronzerrenden inguruan, baina ez dugu horiek kontrastatzerik izan.

Izan ere, orain gutxira arte itxaronzerrendak hilabetero gaurkotu eta publikoki azaltzen ziren nafar gobernuko webgunean, baina badira hilabete batzuk ez dela hala egiten. Zer dela eta ez dira ekainetik itxaronzerrendak publikoki gaurkotu?

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendu-

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, erregaien salmentan osasunerako zentimoaren bidez lortutako diru-bilketa gehigarriari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, erregaien salmentan osasunerako zentimoaren bidez lortutako diru-bilketa gehigarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Manu Ayerdi Olaizolak, foru parlamentaria den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan.

2012ko uztailaren 1ean indarrean sartu zen erregaien salmentan osasunerako zentimoa.

Horren bidez, Nafarroako Gobernuak 8 milioi euro bildu nahi zituen ekitaldi honetan.

Gasolindegietako enpresaburuen Nafarroako elkarte bera neurri horren aurka azaldu zen, neurri hori are kalterako izanen zela esanez, erkidego mugakideetan ez delako osasunerako zentimoa kobratzen.

Lau hilabete igaro dira osasunerako zentimoa ezarri zenez geroztik, eta garrantzitsua da neurriaren ezarpenari buruzko balantzea egitea.

Hartara, ondokoa jakin nahi dugu:

1.- Zenbatekoa da osasunerako zentimoaren bidez lau hilabeteotan lortutako diru-bilketa gehigarria?

2.- Zer bilakaera izan du BEZaren eta erregaien salmentako zerga berezien diru-bilketak 2012ko hirugarren hiruhilekoan, 2011ko hirugarren hiruhilekoan jasotakoarekin alderatuta? Zenbat litro erregai saldu dira aldi horretan Nafarroan, eta zenbat saldu ziren 2011n?

3.- Nafarroako Gobernuak zer balantze egiten du neurriari buruz? Zer egiteko asmoa du etorkizunean horri dagokionez?

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, pertsonen lurzoru ez urbanizagarriko bideak iragateari buruz onetsitako mozioa dela-eta Nafarroako Gobernuak egindako urratsei eta betetze mailari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, pertsonen lurzoru ez urbanizagarriko bideak iragateari buruz onetsitako mozioa dela-eta Nafarroako Gobernuak egindako urratsei eta betetze mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuak, iragan martxoaren 9an egindako bilkuran, talde popularrak aurkeztutako mozio bat onetsi zuen, pertsonen eta ibilgailuek lurzoru ez urbanizagarriko bideak iragateari buruz.

Mozioak bi erabaki proposamen zituen. Lehendabizikoan, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen berrazter eta gaurkotu zezan otsailaren 14ko 36/1994 Foru Dekretua, halako moduan non behar bezala seinaleztatutako ibilbideak, inongo oztoporik gabeak, sortuko baitziren, pertsonak oinez, bizikletaz nahiz ibilgailu motordunez iragate aldera, behar bezalako segurtasun baldintzetan betiere.

Bigarreanean, Nafarroako Gobernuak premiatzen zen aplikazio informatiko bat sor zezan, ibilbide baimenduei buruz informatzeko.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu pertsonen lurzoru ez urbanizagarriko bideak iragateari buruz onetsitako mozioa dela-eta? Zein da mozioaren betetze maila?

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zuzemenik egin duen arantzza bifidoa duten pertsonak gaixo kroniko gisa har daitezen.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zuzemenik egin duen arantzza bifidoa duten pertsonak gaixo kroniko gisa har daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

1. Osasun Departamentuak inolako zuzemenik egin al du arantzza bifidoa duten pertsonen gaixo kronikoen izaera aitortzekin?

2. Ba al dago inolako protokolorik gaixotasun hori duten pertsonen laguntza integrala emateko? Nola kudeatzen da?

Iruñean, 2012ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera abian jarritako neurri buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera abian jarritako neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu organo eskudunari, idatziz erantzun diezaien:

Erlezainek eta ekologistek urteak daramatzate Asiako liztorraren presentzia salatzen, gure geografiko zenbait tokitan agertu izana salatzen. Albisteak hedabideetara ailegatu da. Gisa horretako inbasioak mehatxurik larrienetako bat dira ingurumenarentzat, eta, kasu zehatz honetan, are larriagoa da, espezie oso sentibera bati eragiten diolako; Europako erleari, hain zuzen ere. Hori dela-eta, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

• Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak zer neurri jarri ditu abian Asiako liztorraren presentzia ebaluatze aldera eta bere hedapena eragozte aldera?

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, jakiteko zerk eragin duen baliabide gehiago behar izatea Nafarroaren zorraren interesak ordaintzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zerk eragin duen baliabide gehiago behar izatea Nafarroaren zorraren interesak ordaintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

2012ko maiatzaren 14an, 197/2012 Ebazpenaren bidez, 17.344.383,95 euroko kreditu gehikuntza egin zen 112003-11430-3000-951100 kontusai-

lean (Nafarroaren zorraren interesak). Antza denez, Nafarroako Gobernuak igorritako dokumentazioan berean jasota ageri denez, Nafarroaren interesei buruzko kontusail horretan kreditu gehikuntza egin zen "aurrekontuetako kontusail horretan ez zelako behar adina diru esleitu Nafarroaren zorrak eragindako interesak ordaintzeko".

Horri dagokionez, haxe jakin nahi dut:

Lehena. Zerk eragin du baliabide gehiago behar izatea Nafarroaren zorrak eragindako interesak ordaintzeko?

Bi. 112003-11430-3000-951100 kontusailean (Nafarroaren zorraren interesak) izandako mugimendu guztien zerrenda xehakatu eta justifikatua eskatzen dugu, 2012ko urtarrilaren 1etik Nafarroako Gobernuak galdera hau jasotzen duen egunera bitartekoak.

Hirugarrena. Galdera hau jasotzen den egunera bitarte Nafarroako zorraren interesak direla-eta de facto ordaindutako zenbatekoaren datu zehatza jaso nahi dugu, eta kontzeptu hori bera dela-eta 2012ko abenduaren 31rako aurreikusitako gastu osoa ere bai.

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, familientzako laguntzei buruzko ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak blokeatu egin zituen joan den ekainaren 20an bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailak. Uztailaren 31n, orduko Gizarte Politiketako zuzendari nagusi eta gaurko kontseilari Iñigo Allik iragarri zuen abuztuaren 1ean desblokeatuko zirela kontusail horiek.

– Desblokeatu al dira bigarren seme-alabarengatiko eta lau seme-alaba edo gehiagoko familia ugariarentzako laguntzen kontusailak? Desblokeatu baldin badira, zein egunetan egin zen jakin nahi dugu.

– Eman al zaizkie laguntza horiek familia eska-tzaileei? Eman baldin bazaizkie, emandako laguntzen xehakapena jaso nahi dugu.

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, aztertze aldera parlamentarien kopurua eta lanaldia, Arartekoaren figura eta beste neurri batzuk.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

2012ko azaroaren 6an, Foru Araubideko Batzordeak bazter utzi zuen Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eginiko proposamena, lantalde bat sortzekoa, zeinak aztertu behar

baitzituen parlamentarien kopurua eta lanaldia, Arartekoaren figura eta beste neurri batzuk.

Iruñean, 2012ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera